

Kirola

Errugbia eta elkartasuna uztartuz, Durango Rugby Taldeak Rio de Oro elkarteari lagunduko dio aurten. > 16



75 urte bete dituen egunean, maiatzaren 3an, iragarri du Xabier Amurizak bat-bateko bertsogintza utziko duela. Unai Iturriaga bertsolari eta lagunak elkarriketa egin dio. > 12-13

“Bertsolari polemikoa izan nintzen; orain maitatua sentitzen naiz”

Lehiar Elorriaga

ib **ibaizabal**
IKASTOLA
- Konfidantzan, ikastola -

dagigun!  IBILALDIA 2016
DURANGO

idazkaritza@ibaizabalikastola.eus
Tel.: 946 215 877
www.ibaizabalikastola.eus

BATXILERGOA
Matrikula epea:
maiatzaren 2tik 12ra
Ate irekien eguna:
maiatzaren 9an, 18:30ean

**HAUR HEZKUNTZAKO
GOI MAILAKO ZIKLOA**
Ate irekien eguna:
maiatzaren 17an, 18:30ean



Abadiño > 4

Birkalifikazioaren inguruko herri galdeketa egin gura dute

Durango > 7

Sei kilometroko ibilbide urbanoa izango du Ibilaldiak

Elorrio > 5

Lanik barik dauden elorriarren curriculumak jasoko ditu udalak

Zornotza > 2

Bernagoitia auzoko jaiak indarberitu gura dituzte

Herririk herri

Bernagoitia auzoko jaiak indarberrituta datoz aurten

Jaiek sasoi batean zuten loria berreskuratzeko lanean dabil gazte talde bat



Bernagoitia elkarteko kideak, auzoko plazan.

ZORNOTZA J.Derteano
Gaur hasi eta domekara bitartean, jaiak ospatuko dituzte Bernagoitia auzoan. Aspaldiko urteetan ez bezala, ekitaldiz betetako hiru egun izango dira. Berpizte hori hainbat gazte aurten sortu duten Bernagoitia kultur elkartearen eskutik etorri da.

Orain 20 bat urtera arte Bernagoitiko jaiek oihartzun handia zuten. Benito Lertxundi lako musikarientzat txiki geratzen zen pilotaleku irekia, eta munduko tiragoma txapelketa ere bertan jokatzeko zen. Goitibehera lasterketa zen jaietako beste ekitaldi arrakastatsuetako bat. “Baina gazteak herritik joaten hasi zirenean, jaiek indarra galdu zuten”, gogoratzen du Serafin Bediaga bernagoitiarrak. Auzo txiki bateko jai handiak antolatzeak hauspoa falta zen. Harrezkero, jaiak ospatu izan dituzte, baina formatu xumeagoan eta egun bakarrean.

Bernagoitia kultur elkarte

berriak jaien garai bateko loria berreskuratu gura du. Ez hori bakarrik; urtean zehar ere hainbat ekintza antolatu eta auzolana bultzatu gura dute. Oraingoz, jaiekin hasi dira. Auzoan bizi diren 16 gazte sortu dute elkar-tea, eta urtariletik martitzenero batu dira. Asteburu honetan denen gozagarri egongo diren ekitaldiak lan horren emaitza dira: “Aurtengo jaiak nahiko tradizionalak izango dira, denboraz justutxo ibili gara eta. Baina, aurrera begira, jaietan bereziak izan diren ekimenak berreskuratu gura ditugu”, azaldu du elkarteko Josean Pardok.

Gaur kalejira eta pregoia

Gaur, 18:00etan, kalejiran igoko dira auzoko plazara, Zornotzako joaldunek eta Durangoko txalapartariak lagunduta. 20:00etan pregoia irakurri eta txupinazioa jaurtiko dute, eta afalostean Zornotzako Zirkinik Bez taldeak kontzertua eskainiko du.

Eskoziako musika

Zapatua herri jolasekin (txinga eroateak...) hasiko dute, 12:00etan, eta ostean, baba janean batuko dira. 19:00etan, Imanol Ituiño mago ezagunak saioa eskainiko du, eta 20:00etan, poteoan irtengo dira Abandotik etorritako batukada talde batek lagunduta. 22:00etatik aurrera, musika izango da protagonista. Lehenengo, Harry Bird and Kate Theodore taldeak Eskoziako doinuak ekarriko ditu, eta ostean, Durango eta Berrizko lagunek osatutako Storm taldearen txanda izango da.

Pilota partidu bertsotua

Domeka goiza txistulariek eta Beñat Ugartetxea eta Felipe Zelaieta bertsolariek girotuko dute. Ondoren, 12:00etan, gaztetxoek pilota partidua jokatu dute, tarteka bertsolarien aholku errimatuek lagunduta. Igel-tokagaz eta txapel jaurtike-tagaz amaituko dituzte jaiak.

Astelehenetik martxan da Enplegu Bulegoa

Herriko enpresa eta langabeen arteko zubi lana egitea izango da bulego berriko zereginetako bat

ZORNOTZA J.D.

Astelehenean ireki zuten enplegu eta sustapen ekonomikorako bulego berria San Migel kaleko 3. zenbakian. Harrera guneaz gainera, lau gela ditu 83 metro karratutan banatuta. Hainbat zerbitzu eskainiko ditu. Alde batetik, “azken urteetako gaitzik handiena” izan den langabeziari irtenbidea emateko baliabideak jarri gura dituzte Andoni Agirrebeitia alkatearen esanetan. Horrela, Zornotzako enpresen eta langabeen –edo beste lan baten bila dabilzaten– arteko bitartekari izango da: “Herriko enpresetako lehen aukera zornotzarrak izatea gura dugu”.

Bide horretan, herriko enpresetan azterketa bat burutuko dute datozen sei hileetan. Estibalitz Martiartu enplegu arloko zinegotziaren esanetan, “langileak kontratatzerako orduan enpresek aurkitzen dituzten gabeziak zeintzuk diren identifikatzea da asmoa, ondoren horiei erantzuna emateko”. Enpresa denetara joango direla azpimarratu du: “Txikiek zein

handiek, denek sortzen dute enplegua, eta denak dira inportanteak”. Udalak gaur egun indarrean dituen diru-laguntzen artean, enpresetara bideratutako batzuk daude, langile zornotzarrak kontratatzeagatik.

Era berean, langabeei zein beste enplegu baten bila dabilzane gehien eskatzen diren lan profilei buruzko informazioa emango diete, beraien prestakuntza ahal den neurrian lan merkatuko eskakizunetara egokitu dezaten. Enpresa Bulegora doazen herritarrekin datu base bat osatzen dabilza.

Ekintzaileei aholkularitza

Negozio berri bat martxan jarri nahian dabilzan ekintzaileei ere aholkularitza eskainiko diete: “Kudeaketa eredurik egokiena zein den, diru-laguntzak lortzeko zer aukera dauden... ekintzaileei laguntza eskaintzea da helburua”.

Enplegu Bulegoa astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era, egongo da zabalik. Harremantarako telefono zenbaki bat jarri dute: 94 630 00 02.



Agirrebeitia alkatea eta Martiartu zinegotzia Enplegu Bulegoko atarian.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2016ko maiatzaren 6a
14. urtea - 631. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza eta Nagore
Txintxurreta Isasi.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Maialen Zuazubiskar
Gallastegi eta Paul
Bustindui Revuelta.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Oroimenak eta ospakizunak bat egingo dute domekako Bizkargi egunean

Xabier Arriagak, Onintza Enbeitak, Etxahun Lekuek eta Beñat Romerok bertso saioa eskainiko dute



Urtero ehunka lagun batzen dira Bizkargin.

ZORNOTZA J.D.

Domekan Bizkargi eguna ospatuko dute izen bereko mendian. Urtero legez, ospakizuna eta aldarrikapena uztartuko dituzte goizetik eguerdira.

Aurten Bizkargi Gogoratuz Elkartea ibili da antolaketa lanetan. 11:00etan trikitilariak girotuko dute Bizkargi gaina. Ondoren, 12:30ean, hasierako ekitaldia abiatuko dute txalapartarien eta zarpantzarren laguntzagaz. Jarraian, 13:15 inguruan, bertso saioari ekingo diote. Lau bertsolari arituko dira bertan: Xabier Arriaga 'Txiplas', Onintza Enbeita, Etxahun Lekue eta Beñat Romero. Azkenik, 2011n berreskuraturako ohiturari jarraituz, txuzoa lurrean sartu, eta

Aker Beltz taldeak erromeria joko du. Goiz osoan zehar jan-edianerako aukera egongo da. Zornotzako Gure Esku Dagok dinamikako kamisetagaz joateko deia egin du, bertaratzen diren denekin familia argazki handi bat ateratzeko.

Bizkargi mendi historikoa

Zornotza, Larrabetzu eta Morga batzen dituen Bizkargi mendi tontorrean eusko gudariak tropa frankistei aurre egin zieten 1937. urtean. Ehunka miliziarrek eta gudarik parte hartu zuten borrokaldietan. Gaur egun, jai egunaz gainera, "oroimena, justizia eta egia aldarrikatzeko topagune bilakatu da Bizkargi Eguna", Bizkargi gogoratuz Elkarteko ordezkarien esanetan.

Ixerreko parkinga gauez ere zabalik aurrerantzean

ZORNOTZA J.D.

Ixerreko aparkalekua gauez ere irekita eta erabilgarri dago joan zen asteko barikutik. 18:00etatik hurrengo eguneko 07:00etara bitartean, Ixerren aparkatzea librea izango da, eta autoa bertatik atera ahalko da, gainera. Orain arte, aparkalekua 22:00ak arte zegoen zabalik, eta autoa bertan utziz gero, ezin zen hurrengo goize-ra arte handik atera.

Bestalde, txandakako sistema 18:00ak arte murriztuko dute, eta horrela, ordu horretatik aurrera, epemugarik barik utzi ahalko da kotxea. Ordu horretatik aurrera erosketak eta gestioak gutxitu egiten direla eta, muga kentzea egoki ikusten dute. Domeketan ere, azoka amaitu ostean, 15:00etatik aurrera librea izango da.

Ruper Ordorika Andikoako Asentzio jaietan

BERRIZ M.Z.

Zapatu iluntzean Donien Atxa jasota emango diote hasiera Asentzio jaiak. Ostean, 20:00etan, Ruper Ordorikak kontzertua emango du Andikoako elizan.

Domekarako egitarau oparoa antolatu dute Berrizko Andikoa auzoan. 10:00etan bertako ganadu erakusketa egingo dute, eta 11:00etan meza nagusia egongo da. Mezaren ostean, herriko Iremitze taldeko dantzariak dantzaldia eskainiko dute.

Dantzarien ostean, 12:00 inguruan, Xabier Amurizak gidatuta, beheko zelaietatik basorako bidea hartuko duten artaldei ongi etorria egingo diete bertsoen bidez Miren Amurizak eta Berrizko Bertso Eskolako bertsolariak.

Arratsalderako, berriz, ikuskizun berezia antolatu dute. Pastorienako behorrek karroarekin atzeraka eta Aldaparen astoak aurreraka elkarren kontra egin beharko dute.

Asentzio eguna bukatzeko, bolo txapelketa antolatu dute, eta bertan, edozeinek izango du aukera parte hartzeko.

Jaiak maiatzaren 14an amaituko dira, hurrengo zapatuan, auzotarren urteroko afariarekin. Aurreko urteetan lez, trikitilari eta bertsolariak girotuko dute jaietako azken eguneko afaria.

Belaunaldien arteko mendi ibilbideak

BERRIZ M.Z.

Zahartze aktiboa eta belaunaldi arteko elkartasuna bultzatzeko asmoz, mendi ibilbideak antolatu dituzte Berrizen.

Pausoz pauso Berrizko auzoak ezagutzea leloa duten ibilbide hauek domeka honetan hasiko dira, Andikoako jaiak batera, eta azaroaren 13an amaituko dira ekitaldi berezi batez. Antolatzaileek azaldu dutenez, Berrizko auzoetako jaiak kirola eginez ezagutzea ere badute helburu ibilbideak.

Zortzi ibilbide antolatu dituzte zahartze aktiboa eta belaunaldien arteko elkartasuna bultzatzeko

2016rako zortzi mendi ibilbide antolatu ditu Berrizko Udalak, eta ekainaren 5ekoa (Urbiara irteera egun osorako) izan ezik, beste guztiak Berrizko auzoetatik barrena egingo dira.

Ibilbideek adin guztietako jendea batzea dute helburu, gazteenetatik hasi eta nagusienetaraino. Bertan parte hartu gura dutenek, izena egunean bertan emateaz gain, aurretik ere egin dezakete, jubilatuen etxean, kiroldegian, udaltxean edo gizarte@berriz.org helbidera idatzita.

Maite Carreras
Ingeniaritza elektronikoa
Ikasle ohia eta ingeniaria
AIRBUSen

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE · MAIATZAK 7
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

GOIERRI · MAIATZAK 19
OSTEGUNA, 17:30 / Aula Magna

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORATZA · MAIATZAK 14
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

ARETXABAETA · MAIATZAK 14
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · MAIATZAK 21
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

#erronkarakoprest

Sinadurak biltzen hasiko dira herri-galdeketa bat eskatzeko

Murueta auzoko birkalifikazioaz, herritarrek iritzia ematea bultzatuko dute



Kaleartean Plataformako hainbat kidek agerraldia egin zuten Abadiñoko udaletxearen parean, eguaztenean.

DURANGALDEA I.E.

Murueta auzoko lursail bat lur komertzial moduan birkalifikatzeak Durangaldearen zatitza "ondorio larriak" ekarriko dituela-eta, eta herriko arau subsidiarioen aldaketa horren inguruan herritarrek iritzia eman ahal izatea eskatzeko, sinadura bilketa abiatuko du Kaleartean Plataforma eratu berriak. Abadiñoko Udaleko gobernu taldeak iragarri duen Mercadona eta Lidl supermerkatuen irekierari elkarregaz erantzuteko sortu dute hainbat eragilek plataforma hori, eta eguaztenean egin zuten lehenengo agerraldia.

"Birkalifikazio honek aurrekari bat sortuko du enpresa handien ezarpena errazteko orduan"

Abadiñoko hainbat merkataria; Dendak Bai, Euskal Dendak eta EKA Kontsumitzaileen elkarteak; eta ELA, LAB eta EHNE

sindikatuak batu dira Kaleartean Plataforman.

Merkataritza-gune berriak zabaltzeko Abadiñoko Udaleko gobernu taldeak iragarri duen arau subsidiarioen aldaketa puntualaren kontrako iritzia agertu dute plataformako kideek asteon eskaini duten prentsaurrekoan. Kaleartean Plataformaren ustez, "birkalifikazio honek aurrekari bat sortuko du enpresa handien ezarpena errazteko orduan", eta kritikatu dute "udalak irizpide objektiborik barik" diharduela. Bestalde, enpresa handien irekierak, "etekinak handien artean banatzea" ekarriko duela azpimarratu dute: "Eurak baitira indartsuenak merkatuan".

Sinadura bilketa abian

Udalerriko arau subsidiarioen aldaketa, egitekotan, herri galdeketa batean gehiengoaren babesa lortu ondoren egin behar litzatekeela uste dute Kaleartean plataforman elkartutako norbanako eta eragileek. Horrelako egitasmo batek "herriaren baimena" behar duela pentsa-

tzen dute, "etikoki eta politikoki beharrezkoa" dela herri kontsulta bat burutzea.

Horregatik, Abadiñoko Udalen osoko bilkuran herri galdeketa egin dadin eskatzeko, sinadura bilketa abiatuko dute. Azaldu dute, bozkatzeko eskubidea duten abadiñarren %10en babesa behar dutela eskaria udalera helarazteko.

Traña-Matienako jaietan, zapatuan, ekingo diote sinadurak biltzeari herri galdeketa eskatzeko

Traña-Matienan jaietan daukela aprobetxatuta, zapatu honetan auzo horretan ekingo diote sinadura biltzetari. Bestalde, ekimenarekin bat egiten duten saltoki eta enpresetan, eta herriko beste hainbat lekutan ere ipiniko dituzte sinadurak biltzeko guneak. Sinadura horiek oinarri hartuta, Muruetako birkalifikazioaren inguruko herri galdeketa eskatu gura dute.

Ekainetik aurrera ibiliko da auzo taxia martxan

ABADIÑO I.E.

Autorik ez daukaten baserri auzoetako bizilagunak izango dira auzo-taxi zerbitzu berri honen onuradunak. Zerbitzua baliatu ahal izateko, "Auzo-taxi" txartela eskuratu beharko dute euro bat ordainduta, eta auzogunetik Zelaieta edo Traña-Matienarainoko bidaia bakoitzarengatik 2 euro ordainduko dituzte, autoan doazen bidaia kopurua edozein delarik ere. Erabiltzaile bakoitzak egunean bidaia bi egin ahalko ditu, gehienez.

Astelehenetik barikura, 07:30etik 20:00etara, eta zapatuetan, 09:00etatik 14:00etara, egongo da auzo-taxi zerbitzua martxan. Domeketan, jaiegunetan eta abuztuan, berriz, ez da zerbitzurik egongo.

Gobernu taldeak azaldu duenez, baserri auzoetako hainbat herritarren eskariari erantzunez erabaki dute zerbitzu berria antolatzea, eta ekainean hasiko da martxan.

Eguenean hasiko dituzte San Trokaz jaiak

ABADIÑO I.E.

Maiatzaren 12an, 20:00etan, txistulariek lagunduta kalejira egingo dute jaietako Gerbas panpinagaz San Trokaz jaiak abiatzeko, eta dantzariak emalaldia egingo dute, ondoren, San Trokaz plazan.

Maiatzaren bigarren eta hirugarren asteburuetarako ere hainbat ekitaldi antolatu ditu jai batzordeak. Maiatzaren 15ean, San Trokaz eguneko Meza Nagusia eta ezpatandatzari eta irlanderaren emalaldiak egingo dituzte, eta arratsaldean, Kadete mailako txirrindulari lasterketa eta pilota txapelketaren finalak jokatu dituzte, esaterako.

Maiatzaren 20an, Kepa Junkera eta Sorginak entzun ostean, Koadrilen eguna ospatuko dute, 21ean. Paella erraldoia egingo dute, Ferialeku plazan, eta Luhartz taldeagaz erromeria egingo dute, ondoren. Maiatzaren 22an esango diote Gerbasi eta San Trokaz jaiak agur.

Madrileko diseinatzaile baten arropak ikusgai

Garaiko landetxean 'showroom' bat antolatu dute

GARAI M.O.

Garaiko landetxeak *Showroom* bat antolatu du egunotan, Madrileko diseinatzaile baten arropak ikusi eta erosteko aukera emateko. Atzo zabaldu zuten erakusketa, eta hilaren 11ra arte bisitatu ahal izango da, 12:00etatik 19:00etara bitartean. Azaldu dutenez, doakoa da bisita.

Dagoeneko hirugarren edizioa da, eta landetxeek "zerbait desberdina" egiteko gogoz antolatzen dute. Durangaldetik jende ugari joan izan dela esan

dute, eta egun hauetan, Durangaldetik kanpoko jendea ere joatea espero dute.

Madrildik arropak bidali dizkiete, eta erakusketan Italiatik etorritako jantziak ere egongo dira eskura.

Hilaren 11ra arte bisitatu ahal izango da, 12:00etatik 19:00etara bitartean

MAIATZEKO SARIAK

Anbotoren lagunak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org
Tel.: 946 816 558



SALTSAN KATERIN. MENUA
Bi lagunendako aste bitarteko menua.



IBILALDIA 2016. ARROPA
· Txaketa
· Izerditakoa
· Kamiseta



OPEN KLUB. BONOIA
10 emanaldiko bonua instalazioa nahierara erabiltzeko eta, gainera, nahi adina klase gidatu egiteko aukera.



HITZ LIBURU-DENDA. LIBURUA ETA CDa
Mohamed Xukriren "Hutsegiteen garaia" liburua eta Eskean Kristo taldearen "Eskean Kristo" CDa.



URBASA ABENTURA. MULTIABENTURA
Multiabentura Ibilbidea Familian, 4 pertsonentzako.



APIRILEKO IRABAZLEAK

- > **HITZ LIBURU-DENDA.** Begoña Zugaza-Artaza Munitxa.
- > **SALTSAN KATERIN.** Nerea Urutxurtu Larrea.
- > **SAN AGUSTIN. (maiatzak 5)** Garazi Sampedro Arando / Ane Elordi Alburquerque.
- > **URBASA ABENTURA.** Nerea Arizmendiarrera Zallo.
- > **SAN AGUSTIN. (maiatzak 15)** Julen Altube Zigarán.

Lanik barik dauden elorriarren curriculumak jasoko dituzte

Langabeen curriculumak herriko enpresen esku ipiniko ditu udalak

ELORRIO Markel Onaindia
Herriko langabeen egoerak arduratuta, ideia berri bat plaza-ratu du Elorrioko Udalak: lanik

barik dauden herritarren curriculumak jasoko ditu, eta zerrenda oso hori herriko enpresen eskura ipiniko du. Uneotan, mar-

txoko datuak kontuan hartuta, 327 langabe daude Elorrion.

Idoia Buruaga alkateak eta Jon Ander Gracia zinegotziak



Interesa duten langabeek Herritarren Arreta Zerbitzuan entregatu behar dituzte curriculumak.

prentsari aurkeztu zioten ekimena, martitzenean. Curriculumak emateak ez du esan gura lana ziurra denik, baina ideari balioa eman dio Graciak: “Ez dugu kerik saldu gura, baina curriculum horiek Elorrioko enpresen eskura egongo dira”. Gainera, bost enpresagaz –Eroski, Besaide, Lynce, Metal Smelting eta Iguria– batzartu dira, eta horien harrera ona izan dela esan du Buruagak: “Enpresa batzuei asmoa azaldu diegu, eta interesgarri ikusi dute. Ziurtatzen dugu lan egingo dugula bertako enpresaburuek bertako langabeen berri izan dezaten, eta, aukera izanez gero, elorriar langabeak kontratatzeraz animatuko ditugu”.

Lan barik daudenek Herriarren Arreta Zerbitzuan entregatu ahal dituzte curriculumak. Hilabeteko prozesua izango da, eta ostean, enpresei emango dizkiete.

Enpresekin hartueman
Beraz, curriculum zerrenda es-

kaintzen hasiko da udala, eta enpresekin hartueman sistematzeko lehen pausoa izango da. “Hemendik aurrera, elkarlana aberasgarria izango dela uste dugu”, Buruagaren esanetan. Enpresek bizi duten egoera eza-gutu gura dute: “Enpresa asko krisia pairatzen ari dira, eta ger-

Idoia Buruaga:
“Enpresa batzuei asmoa azaldu diegu, eta interesgarri ikusi dute”

tutik ezagutu gura dugu euren errealitatea”. Gainera, udalari buruz iritzia eskatuko diete.

Elkarteekin ere bai
Ez enpresekin bakarrik, herriko gainerako eragileekin ere erlazioa sistematizatzeko beharra ikusi dute udalean. Horrela, datozen asteetan, batzar errondak garatuko dituzte sindikatu, elkarte sozial eta abarrekin.

Argiñetan erreplika bat lapurtu dute asteon

Argiñetan izandako lapurreta salatu du udalak

ELORRIO M.O.

Argiñetako nekropolian, hilarri baten erreplika lapurtu dute asteon, eta udalak ekintza salatu du. Antza denez, Zenitako bizi-lagun baten ahotik jaso zuten informazioa, eta udaltzainek lapurreta egiaztatu zuten martitzenean. Argiñetako, “erki-degoko hileta-monumentuen artean garrantzitsuenetarikoa” dela gogoratu du udalak.

Erreplika izan arren, lapurretari garrantzia eman dio

Idoia Buruaga alkateak, eta herritarren aurkako lapurreta dela dio: “Argiñetako nekropolia Elorrion eta Bizkaia osoan dugun altxor nagusienetarikoa da. Beraz, guztion ardura da hura ondo zaintzea”.

Euskal Herrian, Goi Erdi Aroko hilobi eta hilarri kopuru handiena dagoen gunea da Argiñetako. Baselizan hamahiru hilarri daude, eta kanpoan bost, interes handikoenak. Horietako batean egin dute lapurreta.

Igerilekuan lan egiteko lau otxandiarren bila dabilta

Sorosle eta garbiketa lanetarako postuak dira

OTXANDIO

Joseba Derteano
Aurten Gasteizko Aiteko enpresak kudeatuko ditu Otxandioko igerilekuak. Aurtengo denboraldiak dirauen hileetan bertan lan egiteko lau langile behar dituzte, eta otxandiarrek lehen-tasuna izango dute, enpresako arduradunek azaldu dutenez. Bi sorosle eta arlo anitzeko (sarrerak kontrolatu, garbitzen lagundu...) beste bi lagun bila dabilta. Interesatuta daudenek info@ariteko.com helbide elek-

tronikora idatzi dezakete. Interesa erakusten duten denekin zerrenda bat osatuko dute. Horrela, aurten zein hurrengo urteetan jendea behar izanez gero, zerrenda horretako jendeagaz jarriko dira hartuemanetan.

Igerilekuan taberna bat irekitzeko aukera dago. Hor lan egin gura dutenek ere helbide berean jakinarazi dezakete interesa. Ez dute alokairurik kobratzen; tabernako ardura zerbitzuengatik trukatzeko dute.

Durangoko etorkizun urbanistikoaz hausnartzen hasi dira foro zabaletan

Herriko arau urbanistikoak aldatzeko prozesua hasi du udalak, eta asteon hiru foro egin dituzte



Martitzenean herriko elkarteetako 30 bat lagunek parte hartu zuten foroan.

DURANGO Markel Onaindia Zelako herri eredu gura dute durangarrek? Zelako ekipamenduak behar dira kultura, hezkuntza, edo kirolerako? Zenbat eta zelako etxebizitzak eraiki behar dira? Zer leku edukiko du industriak? Zer politika garatu behar dira klima aldaketaren aurka? Horiek eta galdera gehiago ekarri dituzte mahai gainera, Durangoren

etorkizunaz hausnartzeko foro zabaletara. Izan ere, herriko arau urbanistikoak aldatzeko prozesua hasi du udalak. Bertatik aterako diren ondorioak oinarri lez erabiliko dituzte hurrengo urteetako lan eta inbertsioetarako.

Aste honetan hiru foro egin dituzte Landako Elkartegian. Martitzenean herriko elkarteak gonbidatu zituzten, eguaz-

tenean auzoetakoak, eta atzo herritar guztiak. Prospektiker enpresak eginiko diagnostiko

Ondorioak oinarri lez erabiliko dituzte hurrengo urteetako lan eta inbertsioetarako

bat aztertu, eta horren gainean sortzen hasi dira. Diagnostikoan hainbat tendentzia jaso direla azaldu du Ibon Zugasti teknikariak, industriarena kasu: “Pabilioi industrialak jadanik ez dira oso handiak izango lehen bezala. Lurzoru gutxiago eskatzen duten jarduera ekonomikoak izango dira”. Etxebizitza beharrianak aztertzea izango da ildoetako bat, Raquel Serrano teknikariaren arabera: “Babes ofizialeko etxeei dagokienez, alokairuko eskaria handitu egin da, eta erosketa, oster, murriztu. Pribatuen kasuan, errehabilitazioa lehentsiko da, etxe berrien eraikuntzaren aurretik”.

Foro estrategikoa

Aste honetakoez aparte, foro ekonomiko bat burutuko dute hilaren 12an, eta bestalde, foro estrategiko bat ere ipiniko dute martxan, emaitzak kontuan hartuta aurrera begira ipintzeko. Teknikariak, zinegotziek eta elkarteetako kideek parte hartuko dute, besteak beste.

Gorka Fraileri proba medikua egin diote

DURANGO M.O.

Gorka Fraile preso gaixoari joan zen barikuan egin zioten proba medikua Badajozeko ospitalean, minbizia berragertu zaion ala ez jakiteko, eta emaitzak datozen egunetan ematea espero dute. Ebakuntza egin ziotenean lez, bereganako jarrrera salatu du oraingoan ere. Izan ere, eskuburdinak ipinita egin behar izan zuen azterketa, medikuak agindu zuelako. Etxeratek ere gertakaria salatu du, eta salaketa ipiniko dute. Duela urtebete topatu zioten mingaineko minbizia, eta ordutik probarik egin barik egon da.

Bestalde, Frailerin aldeko plataformak azaldu du epai-leak ukatu egin diola Euskal Herrira hurreratzeko eskaera, “arreta ona duela” arrazoituta.

Tren geltokian akatsak daudela onartu dute

DURANGO M.O.

Dani Maeztu EH Bilduko legebiltzarkideak eskatuta, agerraldia egin du asteon Ana Oregi sailburuak. Besteak beste, sarrera nagusia maldak handikoa eta labainkorra dela salatu du parlamentari durangarrak, eta euria egiten badu, egoera okerragoa dela. Bada, Oregik, Durangoko tren geltokian akatsak daudela onartu du. Horiek konpontzeko, “berehalako neurriak” iragarri ditu. Adibidez, alfonbra, bandak eta seinaleztapea hobetzea. Horrez gainera, udalak ingurua urbanizatzeko hirigintza plana aurreratuta daukala esan du Oregik: “Epe laburrera, urbanizazioaren lehen faseari ekitea aurreikusten dugu”.

Durangoko EH Bildu abstenitu egingo da aurrekontuaren bozketan



EH Bilduko zinegotziak, artxiboko irudi batean.

DURANGO M.O.

EH Bildu koalizioa abstenitu egingo da 2016ko udal aurrekontua eztabaidatzeko bilkuran. Horrela, EAJ eta PSE-EEren gobernuaren plana aurrera ateratzea ahalbidetuko du. Kontua da, gai batzuen inguruan akordioa lortu dutela koalizioak eta gobernuak. EH Bildukoek balioa ematen diote: “Herritarrek eskatu dizkiguten lehentasunezko zenbait proiektu bultzatzen ari garela uste dugu”. Auzoetan batzar zabalak garatu dituzte,

eta bertan agertutako beharri-zanak kontuan hartu dituzte.

300.000 euro erabiliko dira Aramotz auzoaren birurbanizazioa egiteko; beste 300.000 Antso Estegizerako; eta 200.000 euro San Faustoko urbanizazioa amaitu eta Kapitanena baserria eta inguruak egokitzeko.

Bestalde, 200.000 euro gaz hainbat jolasgune estali, eta Aramotzen txintxaunak eta gimnasia tramankuluak ipiniko dituzte. Zabalarra eta Julene Azpeitia ikastetxeetako obretan 85.000 euro inbertituko dituzte, eta beste 30.000 euro gaz patio bat sortuko dute. Horrez gainera, Turismo Bulegoa Kurutzasantu museora lekualdatuko da.

ATE IREKIAK LANBIDE HEZIKETA
MAIATZAREN 12AN, 15.00 ETATIK 19.00 ETARA

HEZKUNTZA ESKAINTZA:

ERDI MAILA

- Beroa sortzeko instalazioak (iturrintza, eguzki instalazioak, gasa)
- Mantenimendu elektromekanikoa

GOI MAILA

- Administrazioa eta finantzak
- Ekolizpen Prozesuak eta Kalitatea Elikagaien Industria
- Automatizazioa eta robotika industriala
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Mekatronika industriala
- Web Aplikazioen Garapena

ARRATSALDEZ

- Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa

LEA ARTIBAI
GUK BAI

Markina-Xemein • 94 616 90 02 • info@leartik.com • www.leartik.com

Sarbide proba goi mailarako

Sei kilometroko ibilbide urbanoa prestatu du Ibilaldiak

Ibaizabalen antolatuko dute aurkezpen ekitaldia

DURANGO Jone Guenetxea Ibilaldia 2016 geroz eta gertuago dago. Maiatzaren 29ko hitzorduari begira, Ibaizabal eta Kurutziaga ikastoletako ardura-dunek ibilbidearen berri eman dute. Ibilbide urbanoa prestatu dute, lehenengo aldiz Durango barruan egingo den ibilbidea. “Ibilaldia herritik eta herriarengandik hurbil egotea bilatu dugu”, azaldu dute antolatzaileek. Ibilaldiari hasiera ofiziala emateko *Dagigun!* aurkezpena Ibaizabal ikastolan egingo dute, eta bertatik abiatuko da Ibilaldia 2016.

Ibilbideak bost gune izango ditu: Zuhatzola, Landako gunea, Matadero, Kurutziaga, eta Tabira. Guztira 6 kilometro izango ditu. Ibilbide honen berezitasuna norabide jakinik ez duela da. Norberak aukeratuko du norabidea. Antolatzaileek sei kilometroko ibilbide luze

bat proposatu dute. Era berean, herri barrutik beste ibilbide laburrago batzuk egin daitezke.

Egitarau aurrerapena

Egitarauari dagokionez, lan-ildoen berri eman dute. Talde handi famatuak ekarri behar-rean, inguruko taldeei aukera ematea hobetsi dutela azaldu dute. “Ibilaldiak bultzatu gura dituen balioekin bat egiten duela uste dugu, horregatik, Durangaldeko taldeekin, Euskal Herriko talde gazteekin, eta Durangoko elkarte ezberdinekin elkarlanean gauza asko antolatu ditugu urtean zehar, bertso saioa, musika/dantza ekimen... eta Ibilaldi eguna ere”

Ibilaldi eguneko antolakuntzan buru-belarri dihardute. Azaldu dutenez laguntza gehien trafikoa bideratzeko behar dute, 160 lagun, hain zuzen. (Izena ematea: www.ibilaldia.eus).

Musika klaseak hartzeko izen-ematea hasi dute

IZURTZA J.Derteano Mila Rodriguez musika irakasleak 26 urte daramatza Izurtzako liburutegian musika klaseak ematen. Datorren ikasturtean klase horien jarraipena kolokan dago. Ez dakite gutxiengo orduak betetzekoa

Astelehenetik aurrera, izen-ematea Izurtzako udaletxean egin daiteke, 11.30etik 15:00etara

adina lagun batuko dituzten. Horregatik datorren ikasturtea urrian hasiko den arren, izen-ematea irailean behar-rean maiatzetik ekainaren 15era egingo dute. Piano zein solfeo klaseak hartzeko eskari minimorik badagoen jakitea da helburua. “Gazte berririk ez da apuntatzen eta nagusiek, sarritan, ezin dute modu jarraituan etorri, lana edo beste konpromiso batzuk dituztelako”, dio Rodriguezek. Izen-ematea udaletxean egin daiteke. Klaseak doakoak izaten dira udalak diruz laguntzen dituelako.

Udalekuetan parte hartzeko aukera, eskura

MAÑARIA M.O. Aurtengo udalekuetan parte hartzeko aukera eskaintzen hasi da Mañariko Udala, eta interesa dutenek eskura dute dagoeneko inskripzioa. Izan ere, udaletxean (07:30etik 11:00etara) edo liburutegian (15:00etik 19:00etara) eman daiteke izena, eta ekainaren 10era bitartean egongo da horretarako aukera, antolatzaileek informatu dutenez.

Liburutegi zaharrean Ekainaren 27tik uztailaren 29ra egingo dira udalekuak, eta

Ekainaren 10era bitartean egongo da horretarako aukera, antolatzaileek informatu dutenez

3-10 adin tarteko umeentzat da eskaintza. 09:30etik 13:00etara bitartean garatuko dira ekintzak, eta liburutegi zaharra izango da topalekua.

Asteen arabera egingo da inskripzioa, eta baita ondoriozko ordainketa ere.



Zuhatzola, Landako Gunea, Matadero, Kurutziaga eta Tabira izango dira ibilbideko bost guneak.

www.ibilaldia.eus

arineketan egin dagigun!

Neberondora Martxa eta Lasterketa

Maiatzaren 15ean, domeka
Tokia: Ezkurdi plaza
Ordua: 10:00etan Mendi Martxa
 11:00etan Mendi Lasterketa
Ezkurdi-Neberondo-Ezkurdi
 (12km bidezidorretatik)
Izen ematea: 3€ (lumagorri pintxoak barne) 10 urtetik beherakoak doan
Non: aurreko astean Ibaizabal eta Kurutziaga ikastoletan, eta egunean bertan Ezkurdi ordu bete lehenago.
 Lumagorri oilasko izter pintxoak.
 Parte hartzaile guztien artean opari zozketa egingo da!

IBILALDIA 2016 DURANGO

Herri bideen inbentarioa prest udalbatzarrean onartzeko

Ekaineko lehenengo asteleheneko udalbatzarrean bozkatuko dute



Herri bideen inbentarioa egin duen Guillermo Ruiz de Erentxun azalpenak ematen asteleheneko batzordean.

ATXONDO Joseba Derteano Atxondoko herri bideak zeintzuk diren zehazten dituen inbentarioa amaituta dago. Txostena ekaineko lehenengo asteleheneko udalbatzarrean eramango dute behin-behineko onarpena emateko. Ondoren, erabateko onarpena eman aurretik, alegazioak aurkezteko aukera egongo da.

Sendoa enpresak burutu du azterketa eta bertako Guillermo Ruiz de Erentxunek lan horren nondik norakoak eman zituen asteleheneko batzorde irekian. Sarritan, historikoki, udalek ez dituzte herri bideak inon jaso, ez zegoelako premiarik; denek zekiten herri bideak zeintzuk ziren. Atxondon ere horixe gertatu da. Beraz, askotariko artxi-

boetan arakatu eta behar zutenetan herritarrengana jo dute.

Oro har, zoladura duten lehen mailako bideak eta zolatu gabeko bigarren mailakoak dauden arren, “biek status bera” dutela argitu zuen: “Herri bideak dira, nahiz erabilerak desberdina izan”.

Askotan, bideak baso-ustia-penerako erabili izan dira, eta urteetan zehar, batzuk tokiz aldatu dituzte edo zabaldu egin dira. Beraz, norena da zabaldu den zati hori? Normalean jabetza pribatuaren sartzaren baitira: “Guk dioguna da herri bideak ezin direla galdu, mantendu egin behar dira. Gero, beste kontu bat da zelan erabiltzen edo ordenatzen diren”.

Auzo bideak zaintzeko arduraz auzo horietako bizilagunek

izan badute, jabetza auzotar horien ez ote den galdetu zion herritar batek. “Auzo bideak eta herri bideak gauza bera dira”, erantzun zuen “kolektibotasuna” azpimarratuz: “Beste auzo batera joateko, beste auzotar batzuek egindako lana aprobetxatzen da. Auzorik auzora joateko, denek lana egon da”. XVI. mendeko foru legeetan ere horrela jasotzen zela azaldu zuen.

Sarritan, jabetza publikoa eta pribatua bereizteko, dokumentu nagusi moduan eskriturak erabiltzen dituzte herritarrek, baina, sarritan, ez dira iturri fidagarriak: “Eskriturak norbere jabetza eta albokoarenak bereizteko egiten dira. Denona den hori ez da jasotzen. Herri bideek ez dute eskriturarik”

ko elektrizitatea izatea gura dute: “Energia nuklearrari ezeztatu emateko modua ere bada. Denok dakigu, esaterako, Garoñaren egoera eta gure obligazioa, herritarren aurrean, eredu izatea da”, Dabid Cobos alkatearen esanetan.

Bide horretan, Goiener kooperatibaren sartzeara da aukeretako bat, eta bertako Eduardo Urturik kooperatibaren gaineko

azalpenak eman zituen asteleheneko batzorde irekian. Besteak beste, udalek fakturretan %30-40 aurrezten dutela azaldu zuen: “Herri txikiek, urtea joan eta urtea etorri, kontratu beragaz jarraitzen dute; betikoa ordaintzen. 10 kW nahikoa izanda, 30 kW kontratatuta badaude, inor ez da etorriko aldaketa proposatzen. Gurekin, berriz, jakin daiteke zer aukera dauden”.

Berriztagarria den energia kontsumitzeko aukerak aztertzen

ATXONDO J.D.

Elektrizitate hornitzailea aldatzeko aukerak aztertzen da bil udala. Ehuneko ehun iturri berriztagarrietatik jasota-

Udala presoen bandera kentzera behartu dute

Maiatzaren 29a baino lehen kendu beharko dute

ZALDIBAR Itsaso Esteban Euskal presoak Euskal Herrira ekartzea eskatuz Zaldibarko Udalak 2011ko uztailaren 28an onartu zuen mozioa indargabe utzi du administrazioarekiko auzibideen Bilboko epaitegiak. Sententzia horren aginduz, maiatzaren 29a arteko epea du Zaldibarko Udalak udaletxe-ko balkoitik “Euskal preso eta iheslariak etxera” dioen kartela kentzeko. Horrela jakinarazi zuten udaleko gobernu taldeak gainontzeko udal ordezkariak, joan zen eguean egin zuten osoko bilkuran.



Momentuz balkoian dago bandera.

Euskal preso politikoen dis-pertsioa salatuz herritar talde batek proposaturiko mozioa onartu ondoren ipini zuten kartela udaletxe-ko balkoian, 2011n. Baina, udalaren erabakiaren kontra helegitea aurkeztu zuen Carlos Urkijo Espainiako Gobernuaren EAEko ordezkariak.

Duela hiru aste udalean ahotan darabilgun jakinarazpena jaso arte, epaitegietan ibilbide luzea egin du gaiak. Asteon Arantza Baigorri alkateak zehaztu duenez, epaitegietako jardun horrek 2.000 euro inguruko gastua ekarri dio Zaldibarko Udalari.

“Hau ez da Urquijoren lehenengo inposaketa Zaldibarren, eta ez da azkena izango, zoritxarrez”, esan du Arantza Baigorri Zaldibarko alkateak. “Baina dis-pertsioa ilegala dela badakite euren ere, eta guk gure aldarrikapenarekin jarraituko dugu: momentu honetan kartela balkoitik kendu beharko du Zaldibarko Udalak, hala inposatu digutelako, baina guk borrokan jarraituko dugu”.

Ospitaleko lurren zati bat herriak erabili ahal izatea eskatuko dute

ZALDIBAR I.E.

Ospitale psikiatrikoko lurren zati bat zaldibartarren erabilerarako zabaltzea eskatzeko elkartu dira hainbat herritar. Gaur, 19:00etan, liburutegi zaharrean, elkartuko dira lehenengoak. Eredu hori herritarren erabilerarako berreskuratzeko, jendea mobilizatzea gura dute.

Urte asko dira Zaldibarko Udala lur horien erabilpen publiko eskatzen dabilela. Bost

urte dira EH Bilduko gobernu taldea Osakidetzagaz gai horren inguruan negoziatzen hasi zenetik, eta Udalaren 2015eko aurrekontuko proiektu nagusia zen ospitale psikiatrikoko hormaren zati bat bota eta berdegune bat atontzea. Udalak 120.000 euroko inbertsioa aurreikus-tzen zuen, baina Osakidetzagaz adostasunik lortu ez, eta ezin izan dute gauzatu.

Psikiatrikoko lurren zati batean berdegune bat egitea aldarrikatzeko elkartu dira herritar batzuk

Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

RUEDA BILBAO ASEGURUAK

Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
posta elektronikoa: jrueda@segurosbilbao.com

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

hitz #gomendioak

artekalea 14, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

HELDUENTZAT
ANBOTO
Imanol Marrocan (2015)

UME ETA GAZTEENTZAT
TXOKOLATEZKOIA
IZAN NAHI NUKE
Aisne Aguirre & Leire Salaberria (2016)

MUSIKA
CÓMO CONVERTIRSE
EN NADA
Gatillazo (2016)

Pilotalekua eta probalekua banatzeko, toldoa ezarri dute

Beroari eusteko sistemak frontoiko tenperatura egonkortzen du



Mallabiko frontoian ezarritako toldoek pilotalekua eta probalekuko fitness eremua banatzen dituzte.

MALLABIA Paul Bustindui Mallabiko Udalak toldoak ezarri ditu herriko frontoian, pilotalekua eta probalekuko fitness eremua banatzeko.

Urteetan, pilotalekuko harmailetan dagoen berotze sistematik atzeko aldean dagoen fitness eremura joaten zen beroa. “Erregailuetako beroak ihes egiten zuen pilotalekutik, eta toldoak ezarrita epelago egongo dira harmailak”, adierazi du Mallabiko Igor Agirre alkateak. Bi eremuak banatuta, eremu

osoaren erdia baino ez da berotu behar izango. “Frontoiko harmailetan dauden pertsonak erosoago egoteko egindako egitura da, hotz handia egiten baitu bertan, batez ere neguan”, adierazi du Agirrek.

Igor Agirre: “Epeltasuna emango dute toldoek, orain beroa ez delako atzeko aldera joango”

Bizikleten garbitokia Bestalde, Mallabiko udaletxearen atzeko aldean bizikletak garbitzeko azpiegitura bat eraikitzen dabilta. “Egitura honekin, menditik datozen txirrindulariek bizikleta garbitzeko aukera izango dute”, dio Agirre alkateak. Datorren asterako martxan egongo dela adierazi dute Mallabiko Udaletik. Frontoiaren estaldurarekin batera, bi egitura hauek aurrera eramateko aurrekontua badagoela ere adierazi dute.

Egun osoko egitaraua Rio de Oro jaialdian

IURRETA A. Basauri

Rio de Oro IV. Jaialdia ospatuko dute, zapatuan, Iurretan. Horretarako, egun osoko egitaraua prestatu dute Rio de Oro elkartekoek. 11:00etan, umeentzako tailerrak eta ipuin kontalaria hasiko dira; 13:00etan, batukada eta poteoa. Bazkaritarako batuko dira 15:00etan, eta ondoren, bingoa izango dute.

Zumba masterclassa hasiko da 18:00etan, eta 19:15ean Durangaldeko bertso eskolakoen saioa. 20:30ean, DJ Kohatu eta Sangre de Mono arituko dira.

Faustera sartzeko zubia berreraikiko dute

IURRETA A. Basauri

Iurretako Fauste auzorako sarbiderako Bernako (Zornotza) zubia bota eta berria eraikiko dute. Horretarako, lankidetzaz hitzarmena sinatu dute bi udalek. Iurretak landu du egitasmoa, baina bi udalek erdibana egingo diote aurre 200.000 euroko inbertsioari. Lanak uda inguruan hasi gura dituzte, Iñaki Totorikaguena alkateak esan duenez, eta urte amaieran amaitu. Urte hasierako euri-teen eraginez, “nahiko egoera txarrean” dago zubia.

SEI HANKAKO MAHAIA

JULIAN RIOS
SQ-2D



Egunero da maiatzaren 1a Egun hauetan maiatzaren 1a aldarrikatu dugu, termometro ezin hobea lan murrizketei eta murrizketa sindikal eta sozialei dagokienez. Gutxi batzuen aberastearen aurrean, maiatzaren 1ean prekarietatearen amaiera, lan duina eta aukeren berdintasuna aldarrikatzen ditugu, horiek baitira gizartea egituratu beharko luketen printzipioak.

Beste urtebetez, langileon bizi-baldintzak hobetzeko borroka dugu gogoan maiatzaren 1ean, 1886an Chicagon hil zituzten langileak oroitzeko aukeratutako egunean, hain zuzen. Beraz, ez da jaieguna, borrokarako eta aldarrikapenerako eguna baizik. Lan eta soldata duinak eskatzen ditugu guztientzat, eta egungo politika neoliberalak inposatutako prekarietatea arbuiatzen dugu. Aukera berdintasuna eskatzen dugu, eta, horretarako, azken lan erreformak indargabetzea.

Politika neoliberalak gaitzesten ditugu, lan eskubideak ez ezik eskubide sozial eta politikoak ere urratzen dituztelako. Ondasuna gutxi batzuen eskuetan egotea ere gaitzesten dugu. Horiek zenbait egitura baliatzen dituzte herrialdeetan lapurreta egiteko eta birbanaketa saihesteko, “offshore” sozietate opakuek eta euren neurrira egindako paradisu fiskalek antolatutako zerga-ihesaren bidez.

Horrexegatik, asko eta askorentzat egunero da maiatzaren 1a, eta egunero egunero aldarrikatzen dute lan duina izateko eskubidea, euren ere eskubide berdinak dituztelako. Gaur ere bada maiatzaren 1a.

**Erredakzioan itzulia*

DURANGALDEA ASTEON

Ahoztar Zelaietaren berbaldia, A-8az

DURANGO > Datorren astelehenean berbaldia eskainiko du Ahoztar Zelaieta ikerketa-kazetariak, A-8ko bidesariaren inguruan. Hain zuzen ere, bidesari horren aurkako plataformakoek antolatu dute ekitaldia. *La Casta Vasca* liburua argitaratu du Zelaietak. Maristak ikastetxeko aretoan izango da berbaldia, 19:00etan.

Ipad-aren zozketako saria Hitzen eman dute

DURANGO > *Salerosketak be euskaraz* ekimenari dagokion 22. Ipad elektronikoa 426.512 zenbakidun txartelak irabazi du, antolatzaileek azaldu dutenez.

Hitz liburu-dendan banatu dute txartel hori. Ordezko zenbakia, oster, Lur arropa dendan banatutako 427.086 zenbakia da.

Haurreskoletan izena eman daiteke

ABADIÑO > Udalak jakitera eman duenez, Haurreskoletan izena emateko aukera dute 0-2 adin tartekoek, hurrengo ikasturteari begira. Maiatzaren 11ra arte eman ahal da izena. Hortik aurrera jaioko diren umeak ere apuntatu ahal dira, 16 asteak irailean, urrian edo azaroan betez gero. Inskripzio orriak Haurreskoletan daude.

IRITZIA

Kaixo, sorgintxuek!

Durangoko Sorginola Gaztetxeko asanbladako parte-hartzaileak gara, eta aste honetan Tabirako fundizio ohian gertatu denaren berri emateko idazten dugu. Astearte gauean, indarrez sartu z(ir)en Gaztetxe barrura, gainera, pare bat ate apurtu eta zenbait gauza eraman zitu(zt)en.

Sorginola, Durangoko herritar denona dela sinesten dugun heinean, eraso hau denok jasan dugula ulertzen dugu. Horregatik, heldabideetan zabaltzea erabaki genuen, berria jakin eta momentuan bertan.

Jazarpen hauek ez dute gure lan egiteko gogo baretuko. Eta are gutxiago, Fundifes lantegi zaharra okupatu genuen egunaren urteurrenetik hain gertu egonda.

Eraso honi erantzuna emateko modu hoberik ez dagoela uste dugu: gazte guztion gogo, izerdi eta ideiak ereingo ditugu Sorginolaren alde. Ostiral honetan bertan, maiatzaren 6an, Tabirako Parkean egingo dugun asablada zabalera etortzeko deia egiten dugu, Sorginolaren urteurrena eta udako giroa prestatzen hasiko baikara. Durangoko gazteon grinarekin jarraituko dugu lanean!

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.



Odei Arrizabalaga | Berrizko Udaleko Berdintasun teknikaria eta Gizarte langilea | **Berriz, 1987**



“Lan merkatura irten zen emakumea, baina, krisia dela-eta etxera itzuli da”

Berrizko Udalak emakumeak lan merkatuan bizi duen egoera aztertzeke diagnostika landu du

> BERBAZ Aitziber Basauri
‘Berrizko udalerrian lan-merkatuarekiko emakumeen egoera eta posizioari buruzko diagnostikoa’ landu du Berrizko Udalak, Berdintasunaren 4. Planaren barruan. Horretarako, Emakunderen diru-laguntza jaso du. Zabaltzen-Sartu elkarteak eta Equipare kooperatiba txikiak landu dute azterketa. Horretarako, Lanbidek, Behargintzak eta Zabaltzen-Sartuk jasotako datuak erabili dituzte; elkarrizketak ere egin dituzte Urkiola Landa Garapena Elkarteko, Berrizko Merkataria Elkarteko eta Gure Izarrak emakume elkarteko ordezkariekin.

2015eko datuak dira jaso dituzuenak. Zeintzuk dira islatutako ondorio nagusiak? Emakume enplegu-eskatzailen artean, %50ek oinarritzko formazioa baino ez duela esan daiteke, batetik; datu garrantzitsua da hori. Bestetik, okupazioaren banaketa agerikoa da: lana duten emakumeak ez daude era berdinean lanbide eta okupazio guztietan. Oso nabarmen banatzen dira emakumeentzat eta gizonentzat diren lanak. Datuak oso adierazgarriak dira: ostalaritzan, zerbitzuetan, umeak edo

adinekoak zaintzen... lan egiten dute emakumeek; eta lan mota hori eskatzen dute.

Horiek dira lan bila dabiltzan emakumeek eskatutakoak? Bai. Kulturala ere bada. Este-reotipoak, rolak, oso markatuta daude; emakumeek eta gizonen zein lan mota egin behar duten oso markatuta dago. Lana topatzerakoan ere, eta jakinda errazago izango dutela, normalean lan mota horiek eskatzen dituzte emakumeek. Zaintzan, adibidez. Guk ez dugu lanik ematen, ez dugu hori kudeatzen, baina, zaintzarako lanen baten berri badugu, abisua emateko esanez etortzen zaizkigu. Denak emakumeak dira, ez dago gizonik.

Formazioagaz dago lotuta? Bai. Elkarlotuta daude ondorio guztiak. Badago beste ondorio bat, Espainian jaso duten arren, Euskal Autonomia Erkidegora, Bizkaira zein Berrizera estrapolatu daitekeena: lana topatzerako orduan, edo horretarako formazioa jasotzerakoan, emakumeentzat traba izaten da seme-alaben zaintza edo etxearen kargu egotea. Dena dago lotuta. Etxean hasten da dena: etxeko lanen banaketak guztiz baldintzatzen du **andrek formakuntza**

jasotzeko edo etxetik kanpo lana aurkitzeko dituzten aukerak.

Etxean bizitakoaren isla da lan mundua?

Hori erakusten dute datuek. Lanik ez aurkitzeko arrazoiak desberdinak dira gizonen eta emakumeen artean. Norbera edo senitartekoak zaintzeko erantzukizuna aipatzen dute emakumeen %19,26k (gizonen %1,68k); haur eta heldu gaitxoak, minusbaliatuak edo adinduak zaindu beharra %7,05ek (gizonen %0,52k). Horren aurrean, gizonen %47,70ek (andren %19,39k) erretiroa du lanik ez izateko arrazoiak; %25,62k (andren %18,42k) ikasketak egiten edo prestakuntza jasotzen egotea. Bakoitzaren rolak zeintzuk diren argi ageri da.

Langabezia-tasan ere agerikoa da desberdintasun hori?

Emakumeen jarduerata-tasa —lanean eta lan bila daudenak— baxua da Berrizen: %43,41ekoa zen hori 2011n. Langabezia-tasari dagokionez, 2015eko tasa 2011koaren mailara iritsi da: %13,5era heldu da. 2015ean, langabezia-tasa gizonen baina 4,3 puntu altuagoa zen; %9,2an kokatzen zen gizonena (2011n, %11 ziren). Emakumeen

“**Iaz emakumeen langabezia-tasa gizonen baina 4,3 puntu altuagoa zen**”

artean, behin-behinekotasun tasa ere nahiko altua da. Emakumeen langabezia-tasa beti izan da altua, eta horrela mantendu da. Gizonen kasuan, zerbait baxatu da. Horren eraginez, bien arteko aldea handitu egin da.

Zein izan da diagnosi honen helburua?

Egoeraren argazki bat atera gura izan dugu. Datuak bildu ditugu, eta zenbait ondorio atera ditugu. Orain, ekintza plana jarri gura dugu martxan. Fase horretan gaude. Egoera zelan hobetu aztertu beharko dugu. Horretarako, diagnostika erakutsi gura diegu herritarrei, eta bildutako datuen inguruan euren iritzia eskatu. Herritarren ekarpenak jaso gura ditugu, ‘feed-back’ hori sortu, guztia diagnosian batzeko.

Nolakoa da argazki hori? Orokorrean gertatzen dabilena

islatzen da Berrizen ere. Egoera ez da ona inorentzat. Krisi ekonomikoa bizi dugu. Hala ere, krisiak emakumeek lan munduan bizitako egoera areagotu du —langabezia, lan-baldintza eskasagoak, soldata baxuagoak, edota formazio baxua—. Lan merkatura irten zen emakumea, baina, krisiaren eraginez, berriro itzuli da etxera. Indartu egin da etxean geratzen den emakumearen figura (etxearen kargu, seme-alabak edo senideak zaintzeko), gizona etxetik kanpo lanera doan bitartean.

Diagnosiak jasotako datuen batek harritu zaitu?

Lana eskatzen duten emakumeen %50ek oinarritzko formazioa baino ez izatea. Horrek harritu nau. Datu garrantzitsua da, lana topatzerako orduan ere klabea da-eta formazioa ez izatea. Beste profil bateko emakumeak izango zirela uste nuen.

Zer egin beharko litzateke datu horiei buelta emateko?

Erantzunkidetasunean eragin behar dela uste dut. Etxeko ardurak banatu behar dira. Gizonenak zein emakumeenak dira bai etxeko ardurak bai kalekoak. Umeak ere bien ardura dira, eta zainketan biek hartu behar dute parte. Gizonen zein emakumeek dute etxetik kanpo lan egiteko eskubidea. Horretaz guztiaz kontzientziatu behar da herritargoa. Lan munduan ere, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko ere egin beharko litzateke lan.

Arte diziplina desberdinetako sortzaileen zuzeneko saioa

Durangoko Plateruenean performance saioa egingo dute, maiatzaren 12an.



Iazko abenduan egin zuten, lehenengoz, 'Jukebox Ekahitza' performance saioa, Plateruenean. I.Gorriti

> ARTEA Itsaso Esteban
Maiatzaren 12an, 20:00etan, hasiko da Durangoko Plateruenean Jukebox Ekahitza sorkuntza saioa. Paddy Rekalderen poesia,

Arkaitz Cayado *Itsua*ren musika, eta Oier Flores ilustratzailearen eta parte hartu gura duten artista plastikoen lana uztartzetik sortuko da performance-a.

Datorren eguneko ez da Plateruenean Jukebox Ekahitza izeneko saio hau egingo duten lehen aldia: abenduan egin zuten lehenengoz.

Itsua musikariak azaldu duenez, bigarren honetan ere, bere musikagaz giro berezia sortzen saiatuko da, eta giro horretan irakurriko ditu Paddy Rekaldek bere poemak. Musikak eta Rekalderen berber iradokitakoan oinarrituz, momentuan margolanak sortzera gonbidatuko dituzte artista plastikoak. Oier Flores ilustratzaileak dinamizatuko du saioa, eta parte hartu gura duen edonork izango du aukera bere ekarpena egiteko: artelanak sortzeko materiala eskura izango dute parte hartu gura duten guztiek.

Saioa ikustera joan gura duenak, berriz, musikaren, literaturaren eta margogintzaren sorkuntza prozesuak zuzenean eta gertutik ikusteko aukera izango du Plateruenean.

Arte diziplina desberdinetan diharduten artistak elkartzeko helburuagaz abiatutako proiektua da Jukebox Ekahitza. Izan ere, *Itsua* musikariak azpimarratu duenez, "Durangaldean maila oso oneko sortzaileak daude, baina elkar ezagutu eta elkarregaz jarduteko lekuak eta erraztasunak" falta dira.

GEURE DURANGALDEA

JON IRAZABAL

Gerediagako kidea



Jose Goilubar

Iurretara ezkondu zen, 1957an, jaiotzako Goilubar utziz. Hamarkada luzeetan gure artean bizi ostean, bera eta Mari—emaztea—alabarengana joan ziren bizitzera, Albacetera, eta han, 84 urte zituela, heriotza heldu zitzaion.

Jose Zabala Gerenabarrena euskaldun petoa izan genuen. Arrantza bere zaletasunetako bat, eta bertsolaritza bestea. Bertsoa gustuko zuenean "sakona, sakona..." esaten zuen, totelka. Berriko forjako langilea zen, eta han amaitutakoan, arratsalde, barberu Eubako Pijonen taberna barruko gelan.

Lana eta afizioak ez ziren bere ardura bakarrik. Bazituen beste kezka batzuk ere, eta eurretako bat nagusiei laguntzea zen. Barberu izanik, nagusiei ilea doan mozteko prest azaltzen zen beti, eta 1979an, 50 urte egiteko zela, jubilatuentzat doako ile-apaindegia antolatu zuten Iurretako "Carpintería Tabira"n, hileko lehen zapatuetan. Ile-apaindegia eta tertulia leku bihurtu zen aroztegia.

Lau bat urte igaro zuen asmakizunak, baina utzi beharra izan zuen salaketa bat medio. Gero, saiatu zen Iurretako nagusien egoitzan, baina han ere arazoak. Azkenik, asperturik, amore eman eta labana erabiltzeari utzi zion.

Esan liteke gertaera hura ez zela gauza handia izan, baina garaia bizi izan genuenok badakigu horrelako gauzak garrantzitsuak izan zirela. Iurretatik urrun hil da, eskerrik jaso gabe, baina ez dugu ahaztu gure "Jojo".

Izaro Andresek lehen diskoa kaleratuko du

'Crowdfunding' kanpaina abiatu du mallabiarrak

> MUSIKA I.E.

Hamabi kantako lehenengo diskoa kaleratu ahal izateko, *crowdfunding* kanpaina abiatu du Izaro Andres Mallabiko abeslariak. Bere proiektua gauzatu ahal izateko babes ekonomikoa ematen dioten musikazaleei hainbat eskaintza egingo dizkie Izaro Andresek.

Astebete pasatxoan, helburutzat ipini duten diru-kopurua (3.853 euro) erdia lortu dute, eta beste hilabete batez egongo da aukera Izaro Andresen lehenengo diskoaren argitalpena www.goteo.org helbidearen bidez laguntzeko.

Mallabitarrak aurreratu duenez, euskarazko letra duten sei kanta, eta gaztelaniaz eta ingelesez idatzitako beste hiru bilduko ditu bere lehenengo diskoa izango denak, eta 500 ale kaleratu gura dituzte.

Iaz interneten argitaratu zuen *Paradise* kantaren bideoagaz ekin zion bideari Izaro Andresek, eta lehenengo diskoa du orain helmuga.

Maiatzaren 11n, Elorrion, 'K2, zerua ukitzen'

> ZINEMA I.E.

Mendizaletasunari buruzko *K2, zerua ukitzen* dokumentala eskainiko dute, maiatzaren 11n, Elorrioko Iturri kultur etxean. Poloniako, Erresuma Batuko eta Alemaniako sortzaileen elkarlanetik 2015ean sortutako proiektua da *K2, zerua ukitzen*. 1986ko udan mundu osoko dozena bat herrialdeetako espedizioek K2 mendia aldi berean igotzeko egin zuten saiakera kontatzen du filmak, mendian hil ziren 13 eskalatzaileetako lau seme-alabaren begietatik.

Durangaldeko kartografia Elorrioko Iturri

> HISTORIA I.E.

Ramon Oleaga kartografiaren 20 mapak osatzen dute maiatzaren 31ra arte Elorrioko Iturri kultur etxean egongo den *Durangaldeko kartografia* erakusketa. XVI. eta XXI. mende bitarteko mapek osatzen dute bilduma, eta erakusketara doanak "territorioaz ematen den irudiaren eta boterearen arteko loturaz" gogoeta egin dezan gura du Oleagak. Asteazkenean, 09:00etatik 21:00etara egongo da erakusketa zabalik, eta zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara.



Soinuako ikasleen kontzertua
Maiatzaren 12an, 18:30ean
Maiatzaren 13an, 18:30ean

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net



Ensueños
El Milagro de la niña (Baleares)
Maiatzaren 15ean, 18:00etan

San Agustín KULTUR GUNEAK



PLATERUENA

Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK



MAIATZAK 6
22:30ean
DURANGO(H)OTS
JAM SESSION
KONTZERTUA



MAIATZAK 12
20:00etan
JUKEBOX
EKAHITZA
PERFORMANEA



MAIATZAK 13
18:00etan
SCOTTISH DANCING & SONGS
DANTZA



**“Literatur sorkuntz
zentratu gura dut,
ez dut bestelako
ardurarik nahi”**

► BERTSOLARITZA

Bat-bateko bertsogintza utziko duela iragarri du, asteen, Xabier Amurizak. 51 urte eman ditu bertsotan. ANBOTOK eskatuta, Unai Iturriaga bertsolari eta lagunak erabaki horren eta bere ibilbidearen inguruan egin dizkion galderari erantzun die Amurizak.

Zergatik utzi kantatzeari?

Batetik, 75 urtegar adinaren karga ere nabaria delako. Eta, epe bat ipintzekotan, hauxe jo dudalako egokitzen. Uste dut intelektualki oraindik urte onak eduki ditzakedala, eta horiek aprobetxatu gura ditut eskusiboki nire intereseko gauzetarako. Literatur sorkuntzan zentratu gura dut nire burua, eta ez dut beste ardurarik nahi. Nik bertsolaritzan egin nezakeena eginda dago.

Sei urtegar, Autzaganekeko tabernako barra gainetik kantatu zenuenean ohartu zinen bertsosen magiagaz? Ez pentsa. Gero, makina bat

berba egin dut, baina ume isil, beldurri eta bakartia nintzen, eta jendeak kantatzeko eskatzea sufrimendua zen niretzat. 11 urtegar fraileetara eraman nindutenean, “han behintzat inork ez dit bertsorik eskatuko” izan zen nire kontsolamendu bakarra... Bertsorekiko nire benetako lotura seminarioan gertatu zen, 16 urte nituela: errezoan genbiltzala plantak egin, eta bertsok kantatzen ibiltzen ginen. Gero, 20 urtegar, Abel Muniategigaz hasi zen nire benetako bertsoskola. Eta 50 urte baino gehiago eman ditut horretan.

Muniategigaz, 1966. urtean, Gizaburuagan parte hartu zenuen lehenengoz saio batean? Hori abade nintzela izan zen, bai. Baina, aurretik, ikasle nintzela ere egiten genituen saioak, Autzaganeke jaietan, Bedian, Etxanon... Txapelketa txikiak egiten genituen han inguruan.

Ez zen, baina, berezia izan Gizaburuagako saio hori? Han abade nintzela, San Isidro

**“
Intelektualki
oraindik urte onak
eduki ditzaket, eta
horiek aprobetxatzea
nahi dut”**

**“
Abade bat sotana
eta guzti plazan
kantuan agertzea
lehenago sekula
ikusiko bakoia zen”**

egunean egin genuen saio hori. Oihartzun berezia izan zuen saio hark inguruetan: abade bat sotana eta guzti plazan kantuan agertzea lehenago sekula ikusi bako gauza zen. Inguruko herriraskotako jaietan ibili ginen, domeketako meza ostean. Aldaretik saiora igarotzen ginen, eta, sarritan, batean eta bestean entzulego bera genuen.

Jendeak zelan hartu zuen abade bertsolaria?

Frankismo gordinen bizi ginen, eta abadea sotana eta guzti bertsotan ikusita marmarka ibili ziren asko, baina guk astindua eman gura genuen. Abadeen artean mugimendu nahiko indartsua zegoen, eta hartara batu ginen. Gogoan dut, geroago, neskak bertsotan hasi zirenean, sarritan gogoratzen nuela gure sasoi hura. Gazteei esaten nien lasai hartzeko, laster ohituko zela jendea. Abade bat bertsotan ikustea batzuek ez zuten erraz onartu, baina ekin genion, eta denboragaz lortu genuen jendearen onarpena.

Xabier Amuriza

1941eko maiatzaren 3an jaio zen, Zornotzako Etxano auzoan. Berrizen bizi da

Unai Iturriaga

1974ko ekainaren 28an jaio zen, Durangon, eta bertan bizi da.

Hiru zatitan, zazpi urte egin zenuen kartzelan. Abadetza uzteko erabakiagaz atera zinen kartzelatik, eta bertsolaritzari buru-belarri ekiteko gogoz. 1975eko abuztuan atera nintzen kartzelatik, eta handik urte batera hartu nuen abadetza uzteko erabakia. Kartzela barruan hiztegi errimatuak osatuta atera nintzen kalera, eta plazara salto egiteko erabakia hartuta. 1976ko udaberri hartan Gernikan kantatu nuen kartzelatik atera ostean, lehenengoz. Hain zuzen, saio horregaz dauka lotura nire bertsolari bizitzako gomutarik politenetako batek: han kantatu nuen agurra gogoratzen zuela esan zidan, orain urtebete inguru, bertsosale batek. Berak kantatuta berreskuratu nituen Gernikan botatakoak. Gernikako horren ostean, Euskal Herriko bazter guztietatik hasi zitzaizkidan deitzen.



gizarteari loturiko ideia berriak ekarri genituen, eta erresistentzia handiak egon ziren. Pentsatzen ez nuena izan zen, txapela irabazi eta gero ere borroka horretan jarraitu beharko nuela. Horrek apur bat desmoralizatu egin ninduen bere momentuan, euskaltzaleak eta bertsozaleak zirelako kontra genituenetariko asko, eta jende horren aurrean kantatu behar nuelako... Bestalde, txapela bizkaitar batek irabaztea ez zen bizkaitarren buruan ere sartzen.

Hizkuntzaren hautuari lotuta, sasoi hartan ukatu zitzazun guztia da, geroztik, bertsogintzaren oinarria izan dena. Onespina berandu etorri zaizula sentitzen duzu?

Orain badirudi gauza ebidentek direla, baina sasoi hartan eztabaida bizia izan zen. Jendea bertsolariak gipuzkeraz entzuteratuta zegoen, eta gipuzkera entzun gura zuen. Baina nik erabakia hartu nuen: Bizkaian bizkaiera jasoan kantatuko nuen, eta hemendik kanpo batuan. Frogatu genuen bizkaierak errimarako aukera asko ematen dituela.

87an parte hartu zenuen txapelketan azkenengoz.

Bai, 1989an ere joateakoa nintzen Euskal Herriko txapelketara, baina eztarriko zorioneko arazoengatik ezin izan nuen parte hartu. Horren ostean, urtebeteko isilunea egin nuen.

Geldialdi horren ostean bueltatu zinenean, liblean bakarrik arituko zinela esan zenuen, eta saio integralen aldeko apustua ere egin zenuen. Apustu horiek ondo atera ez izanaren sentsazioz edukitu duzu?

Ahotsa berreskuratu nuenean, Andikoako jaietan egin nuen lehenengo agerpena, Lopategigaz, eta harrera beroa egin zigun jendeak. 94-95 urtera arte jarraitu nuen. Baina hasia nintzen pentsatzen liblean askoz gusturago nenbilela, eta ailegatu zen momentu bat liblean bakarrik ibiltzeko erabakia hartu nuena. Bertso saio integralen proba batzuk egin genituen, bai, baina ez zuen ondo funtzionatu.

Zeintzuk izan dira zure bertso kiderik iraunkorrenak?

Abadetzan, Muniategi; gero, hainbat urtez, Lopategi eta Azpillaga; gero, Mañukortagaz ere ibili nintzen, eta Enbeitagaz... Belaunaldi berria etorri zenean, bertsolari gazteen kideztat ipintzen ninduten sarritan, eta Sarasuagaz hainbat saio egin nuen. Gero, zuek ere etorri zineten... Laguntzaile edo tira-tzaile moduan deitzen zidaten gazteekin saioak egiteko, eta oso pozgarria izan da hori niretzat.

Euskal Herriko txapela irabazi zenuen, 1980an. Txapelketaren inguruan, nire irudipena da, jendeak txapeldun imajinatu behar zaituela txapela irabazi ahal izateko. Zelan uste duzu ikusten zintuela jendeak?

Uste dut joanez gero irabazi egingo nuela pentsatzen zutela askok, eta hori ez zela komeni ere bai. Kementsu eta gogotsu nengoen, eta joatea erabaki nuen; eta batuan kantatuko nuela. Txapelketagaz mugimendu handia sortuko zela banekien, eta hor egon gura nuen.

Euskara batua plazara eramateak batzuen erresistentzia ere eragin zuen, ezta?

Bai, liburuko bertsolaria nintzela esaten zidaten, mespretxuz. Baina, egia dena da, bertsoan hasi nintzenerako ezaguna nintzela, eta politikoki definizio bat nekarrela. Polemiko nintzen: abadea, preso egondakoa... Nire ideia errebeldeekin bat egiten ez zuen sektore handi batek ez zuen txapela nik irabazterik nahi. Hizkuntzari, politikari eta



Xabier Amurizaren inguruan elkartzeko hainbat hitzordu antolatu dituzte haren lagunek datozen asteetarako:

• **Maiatzaren 19an, 19:00etan** · Bilboko Bidebarrieta liburutegian, **‘Zein ongi bizi zen Ulises’** entzukizuna, Xabier Amurizaren eskutik.

• **Ekainaren 16an, 19:00etan** · Zornotzako Zelaieta zentroan, **‘Amurizaren gaiak eta garaiak’** berbaldia.

• **Ekainaren 17an, 22:30ean** · Durangoko Plateruena Kafe Antzokian, **‘Emaidazue freskura’** kantaldia.

• **Ekainaren 19an** · **Etzanotik Berrizera Erromesaldi artistikoa**, eta 14:30ean, herri bazkaria, Berrizen.

Bertsolaritzaren bidaiaren lekukoa izan zara. Zer bide egin duela ikusten duzu?

Esango nuke lehen konpaktua goa zela bertsolaritza. Orain, aniztasun itzela dago. Gure sasoiari, bertsolaritza, edo gaiak ipinita, edo liblean jardutea zen. Gaur egun, bertsolaritzari alde guztietatik tiratzen zaio: edonon kantatu dezakegunez, bertsolariak edozeri lagundu diezaioke. Batzuetan, bertsolaria eramana aurkitzen dela sumatzen dut.

Jubilatu zinenean, orain idaztea gura duzula esan zenuen. Bertsogintza ogibide moduan eta literatura arte moduan ikusten dituzula ulertu nuen... Bertsolaritza ez al da artea?

Artea da ahozko literatura, jakina, eta nire bizibidea izan da. Baina, bat-batekoaren kalitatea ezin da testuarekin alderatu. Bertso idatzietan, batzuetan, artea egin dudala sentitzen dut, *Mendian gora*, *Hilkutxan ere kantari* edo *Anbotorekin trukean* bertso sortetan, esate-

“*Nire ideiekin bat egiten ez zuen sektore handi batek ez zuen txapela nik irabazterik nahi*”

“*‘Zein ongi bizi zen Ulises’ aurkezpena prestatzen nabil, horixe da nire ilusioa orain*”

rako. Arte soil eta zuzenagoa da bat-batekoa, eta nik orain testua landu gura dut gehiago. Zelan mespretxatuko dut bertsolaritza nire bizitza izan bada?

Zer irudi daukazu Amuriza bertsolariarena?

Urteak joanda, nirekin tratatu zuzena eduki dutenek maite nautela nabari dut, baina bertsolari oso polemikoa izan nintzen. Maitatua sentitzen naiz orain, eta poz itzela ematen dit horrek.

Zer daukazu orain eskuartearen? Maitzaren 19an, 19:00etan, Bilboko Bidebarrieta liburutegian egingo dudana *Zein ongi bizi zen Ulises* entzukizuna prestatzen nabil, amaituta daukadan nobela baten sinopsia. Bilbokoaren ostean, saio hori leku gehiagotan eskaini ahal izatea da nire ilusioa. Gura nuke bertsozaleak eta beste jende bat ere ikusi ahal izatea berbaldi horietan entzule. Aro bat itxi, baina beste bat zabaldu nahi dut.

EDERTASUN GIDA



Ana Camarero.

Zimurrei agur

Ana Camarerok estetika zentroa dauka Durangon. Azaleko zimurren kontra zer egin ahal den aztertu du, eta daukaten eskaintzaren berri eman du.

Zelan egin daiteke azaleko zimurren kontra? Kleopatraren sekreturik handiena hori da. Astemearen esneagaz bainuak hartzen zituen, azido laktiko eta tartarikoak dauzkalako. Eta horiek azala gaztetzen laguntzen dute. Gaur egun Alfa Hidroxi Azidoak erabiltzen ditugu. Azido horiek hildako zelulak kentzen dituzte, eta modu horretan, itxura leunagoa, finkoagoa eta hidratatuagoa lortzen da. Azido mota hauek daude: zitrikoa, laktikoa, malikoa, glikolikoa eta tartarikoa.

Zelako azaletan erabili ahal dira azido horiek? Era guztietako azaletan erabiltzen dira, finenetik lodienerraino. Tratamendu honek gaztetu, hidratatu, orekatu eta argitu egiten du azala. Freskoagoa bihurtzen da azala, eta baita gazteagoa eta argitsuagoa ere. Azidoak klinikoki frogatuta daude, eta ez daukate parabenik ezta perfumerik ere.

Eskaintza ere badaukazue, ezta? Bai. Maiatzean %30eko deskontua egingo dugu promozio honekin.



ILE-APAINDEGIAK



ESTETIKA ZENTROAK



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Marina Murtua | Tabirako Baqueko saskibaloia taldeko joko antolatzailea | Durango, 1986

“Edozein talderi irabazteko gai gara, baina hori kantxan erakutsi behar dugu”

Marina Murtua kapitainak gidatuta, Tabirako Baquek lauko finala jokatu du asteburuan, Durangoko Landako Kiroldegian



Lan handia eta taldeko giro ona dira taldearen azken urteetako ibilbide ona azaltzeko gakoak, Murtuaren ustez.

➤ **SASKIBALOIA** J.Derteano
Tabirako-Baqué igoera fase berri baten atarian dago. Horretarako, asteburuan Durangon jokatu den lauko finala irabazi behar dute. Leioaren kontra jokatu dute finalerdia, bihar, 20:15ean. Marina Murtua kapitainak gidatuko du Durangoko taldea. Hamahiru urte daramatza lehen taldean, eta konfiantza du talde honengan.

Zure esperientziako jokalariek zelan bizi du lauko final bat? Hasierako ilusioagaz, urteek ematen duten patxadagaz... Partidu den-denetan izaten ditut nerbioak dantzan. Esperientziak gauza asko bizi izana esan gura du eta biharko lako partiduetan lagungarria da, baina sabeleko kilima horiek, ilusioa eta motibazioa, ez dira kentzen.

Zaleak ere ilusioz daude. Joan zen asteburuan jende askoren babesa izan zenuten. Partidu garrantzitsua zen, irabazleak ligako bigarren tokian

amaitu eta lauko finala antolatzeko eskubidea irabazten zuelako. Garaipen polita izan zen, eta zaleek asko lagundu ziguten. Jende asko batu zen. Oso pozik gaude eurekin. Asteburu honetan ere berdina eskatzen diegu. Guk dena emango dugu.

Bihar Leioa izango duzue aurkari. Aurten edonori irabazteko kapaz zaretela erakutsi duzue, baina partidu bakarrera... Oso maila ona eman beharko dugu. Partidu bakarrera lauretako edonork irabazi dezake. Gure indarra, konfiantza eta urteetan egindako lana erakutsi behar ditugu. Edozein talderi irabazteko gai gara, baina hori kantxan erakutsi behar dugu.

“**Ez dut saskibaloia uzteko gogorik; unea heltzean, barruak esango dit**”

Orain urte bi liga irabazi, eta, zuzenean, igoera fasea jokatu zenuten. Iaz eta aurten lauko finalean zaudete, azken fasearen atarian. Zein da sekretua? Lan handia eta giro ona, horiek dira gakoak. Lan handia egiten dugu entrenamenduetan. Eta lana diodanean, benetako lana da. Horregaz batera, taldeko giro ona ere garrantzitsua da emaitza onak lortzeko. Azken urteetan taldeari eutsi diogu, lehengoak gara asko. Ordu asko ematen ditugu elkarrekin, eta oso ondo konpontzen gara. Norabide berean eta helburu bera alde konprometituta gaude.

Jesus de Vicentek hiru urte daramatza entrenatzaile, goian zabilatzaten hiru urteak. Kasualitatea? Ez da kasualitatea. Entrenamenduetan asko estutzen gaitu, baina badakigu horrela izan behar duela, eta, gainera, behar dugula uste dut. Partiduetako intentsitate horri eusteko behar dugun zerbait da.

Taldeko kapitaina zara, eta beteranoena. Horrek jokoaz aparteko ardura batzuk ere ekartzen ditu. Motxila astuna da?

16 urte gaz debutatu nuenean taldeko gazteena nintzen, eta orain beteranoena naiz. Urte hauetan taldea askotariko ikuspuntuetatik behatzeko aukera izan dut. Ikasi egiten da jendeagaz tratatzen. Niretzat ez da nekagarria edo motxila astunegia. Gustura egiten dudana zerbait da. Gainera, kontua ez da nik diodana, eta kitto! Gauzak denon artean hitz egiten ditugu.

Kantxa barruan ere ardura hartzeko gaitasuna baduzula erakutsi duzu. Joan zen asteburuan, taldea galtzen zihola, 8 puntu sartu zenituen azken laurdenean, hiruko bi tartean. Edozeinek jaurti zezakeen. Baina, baloia hartu, eta “sartuko dut” pentsatzen nuen, horixe neukan buruan. Konbentziturik egin nituen jaurtiketak. Baikorra izaten eta irabaziko dugula pentsatzen saiatzen naiz beti.

14 urte daramatzazu lehen taldean. Oraindik gaztea zara, baina abentura hau noiz amaituko den galdetzen diozu zeure buruari?

Batzuetan bai, baina ez dut uzteko batere gogorik. Horretarako momentua heltzen denean, barruak esango didala esango nuke. Itzelean gozatzen dut, eta pena ematen dit saskibaloia uzteak. Urteetan zehar une onak eta txarrak, bietarik bizitzen da, baina onak gehiago izan dira, eta merezi du.

Salamancan jokatu zenuten igoera fasea, momentu onen ala txarren kaxan gorde duzu? Esperientzia hori bizitzea polita izan zen. Hasiberrien zigorra ordaindu genuen. Sekula igoera fasea jokatu gabekoak ginen.

“**Baikorra izaten eta irabaziko dugula pentsatzen saiatzen naiz beti**”

Orain berriro jokatzeko aukera izango bagenu, uste dut partiduei beste modu batera aurre egingo geniekeela.

Zelan gogoratzen duzu 16 urte gaz lehenengo taldean debutatu zenuen unea? Orain baino maila bat gorago zeundeten.

Unai Zamalloa entrenatzaileak abuztuaren deitu zidan. Joko antolatzaile batek taldea utziko zuela-eta, niri deitu zidan. Aukera eskaini, eta erantzuna eman aurretik, egun batzuk eman zizkidan salto horrek ekartzen zidan guztia ondo hausnartzeko. Nik ez nuen pentsatzeko egunik behar. Erabakia hartuta neukan. Beti pauso bat aurrera ematen saiatzen den horietakoa naiz. Unai (Zamalloa) konfiantza handia eman zidan. Estimua handia diot, beragaz hartueman estua izan dut beti. Oro har, denon artean mimatu egin ninduten urte hartan. Erraztasun asko eman zizkidaten.

Nuria ahizpa taldekidea duzu. Hori abantaila da, desabantaila, bietatik apur bat...

Biak batera. Badakizu, konfiantza dagoenean... baina ondo konpontzen gara.

Ahizpa gazteak zelan hartzen ditu taldeko kapitainaren aholkuak?

(Barreak) Tira, nik bere aholkuak txartoago hartzen ditudala uste dut. Baina ondo hartzen dugu elkar.

Saskibaloia ohiko gaia izango da zuen artean, ezta?

Bai (barreak). Askotan hitz egiten dugu saskibaloia buruz, eta egun hauetan gehiago, lauko finalaren harira.

Tabirako Baqueren emakume zein gizonak lauko finalean; erregional mailakoak bikain, eta junior neskak Bizkaiko txapel-dun. Modan dagoen kluba da. Azken urteetan lan ona egiten ari dela uste dut. Gazte asko dabilta saskibaloian eta horrelako lorpenak inportantek izaten dira gazteengan zaletasuna pizteko.

Errugbia eta solidaritatea eskutik aurten ere Durango Rugby Taldearen topaketetan

Nissan Gaursak euro bat emango dio Rio de Oro elkarteari parte hartzen duen gazte bakoitzagatik



Rio de Oro, Nissan Gaursak eta Durango Rugby Taldeko ordezkariak eguazteneko aurkezpenean.

> ERRUGBIA J.D.

Durango Rugby Taldeak errugbi topaketak antolatuko ditu datorren astean, errugbirako zaletasuna sustatzeko. Iaz hasitako bideari jarraituz, aurten ere errugbia eta elkartasuna uztartu, eta dirua batuko dute Rio de Oro elkartearentzat, Nissan Gaursaren laguntzagaz.

Iaz 1.200 gazte batu ziren, eta aurten kopurua gehitzea itxaroten dute, diru ekarpena handitzeko

Iaz ere Rio de Oro elkarteari lagundu zioten, baina orduko hartan material (arropa, garbitasun produktuak, jostailuak...) bilketa egin zuten. Aurten, zuzenean dirua jasoko dute, gero euren beharrezanetan erabiltzeko. Topaketetan parte hartzen duen gazte bakoitzeko euro bat emango du Nissan Gaursak. Iaz

1.200 gazte batu ziren, eta aurten kopuru hori gehitzea itxaroten dute, ekarpena ahalik eta handiena izan dadin.

Topaketek seigarren aldia egingo dute aurten. Durangoko institutuko, Kurutziaga ikastolako, Zabalarra eskolako, Never's eta San Antonio-Santa Rita ikastetxeetako eta Abadiñoiko institutuko gazteek (9-16 urte artean) parte hartuko dute. Astelehenean 14:30ean, eta eguazten, eguen eta barikuan 10:00etan elkartuko dira, Arripausuetan.

Aurten 12 ume izurtzara

Rio de Oro elkarteak beharrian bereziak dituzten ume sahararrak ekartzen ditu udan. Uztaila eta abuztua Izurtzako abade-txean ematen dituzte: "Aurten 12 gazte ekarriko ditugu, iaz baino bi gehiago. Euretako laurentzat lehenengo esperientzia izango da", azaldu zuen Maider Caballero elkarteak ordezkariak. DRTari eskerrak eman zizkion "horrelako ekintzek gure lana posible egiten dutelako", eta iaz jasotako materiala "oso baliagarria" izan zitzaizen.

ADITUAREN TXOKOA

KOIKILI LERTXUNDI

Futbolari ohia eta enpresaria



One Club Man Award

Futbol denboraldia bukatzeaz dagoen une honetan, kit kat bat egin eta futbolaz haratago doan gertaera ezohiko bati buruz berba egin gura dut. Paolo Maldini jokalaria egunotan jaso duen omenaldiaz ari naiz.

Izan ere, horrelako kirol ibilbidea egin duten kirolari gutxi daude, are gutxiago maila handiko kirolariak direnean, are gutxiago azken 25 urteetan futbolaren profesionalizazioak jokalarien (merkantzien) etorkizunean eragiten duen joan-etorriari erreparatzen badiogu. Paolo Maldinik, espekulazioaren atzaparrak ginetik kendu, eta Athletic zaleoi hain garrantzitsua iruditzen zaigun kidegotza sentimendua bizi-rik dagoela frogatu digu.

Ez hori bakarrik, bere ibilbideko azken urteetan taldeko kapitaina izateak sentimendu hori transmititzeko aukera paregabea eman dio, baita egin ere. Hain nabarmena izan da berak utzitako hazia, harrigarria iruditzen arren, beste herrialde, liga eta kultura bateko Clubak omendu duela.

Eta harrigarria dirudien arren, ekimen honek hausnarketarako galdera hau uzten dit: futbol munduak eta Athletic Clubak kidegotza sentimendua sustatu, sendotu eta transmititu beharra dute?

Erantzuna bilatzen dugun bitartean, lerro hauek balio dezatela bera ezagutzeak sortu zidan mirespena azpimarratzeko. 2007an San Mameseko berdegunean eta aldageletan admirazio hori zuzenean aitortzeko pagotxa izan bainuen.

Niretzat bere jarduna, pertsona eta kirolari erreferentzia bat izan denez, agurtzeko hiru hitz besterik ez:

Eskerrik asko, Capitano!

Padel solidarioak Rio de Oro elkarteari lagunduko dio aurten



Inskripzioa 12 eurokoa da, baina hortik gorako diru-laguntzak eman daitezke.

> PADELA P. Bustindui

Ekainaren 3, 4, 5, 10, 11 eta 12an jokatu da aurtengo III. Padel txapelketa solidarioa Arripausuetan. Fair Play Durango Padel Kluba da txapelketaren antolatzailea, eta batutako dirua udan Izurtzara ume sahararrak ekartzen dituen Rio de Oro elkarteari laguntzeko izango da. Txapelketan parte hartu gura duenak inskripzioa Abadiñoiko Eroskin betetzeko aukera izan-

go du maiatzaren 20, 23 eta 24an, 19:00etatik 21:00etara. Inskripzioa 12 eurokoa izango da, baina posiblea izango da diru gehiago ematea Rio de Oro elkarteak aurrera eraman nahi duen ekimenerako. Emakumezko eta gizonezkoen kategoriak dituen txapelketak bi fase izango ditu, taldekakoa eta kanporaketak.

Txapelketan parte hartu gura duenak izen-ematea Abadiñoiko Eroskin egin dezake, 12 euroren truke



MACOBER

Eraikuntzarako materiala

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

katerin ardoak


inaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delikatessena - Ardotea

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com



GREMIOEN GIDA



ARKITEKTURA

ARKITEKSAN

ARKITEKTURA, ERREFORMA, TEKNIKAK
SERVICIOS DE ARQUITECTURA, TÉCNICA

- OBREN ZUZENDARITZA
- PROIEKTUAK / BIRGAITZEAK
- ERREFORMA ETA GARAPENERAKO
- NEGOTIO LOKALEN PROIEKTUAK
- ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK
- NEURKETAK, PLANOAK
